ERREFERENTZIA-TERMINOAK

«Ikasgela eta komunitatea gazte eta emakume migratzaileentzako alternatibak eraikitzeko gune gisa» proiektuaren kanpo-ebaluazioa

1. Sarrera

Mugarik Gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da, 1997an sortua, Ekonomiaren arloko ikasle, irakasle eta profesionalen talde handi baten ekimenez. Sortu zenetik, ekonomia bidezkoa, solidarioa, jasangarria eta feminista eraikitzen lagundu nahi du. Pertsonen zerbitzura egongo den ekonomia, espekulaziorik gabe, bidezko arau komertzialak izango dituena, non elikadura, osasuna eta hezkuntza ez diren merkantzia izango, eskubideak baizik. Elkartasunean oinarritutako ekonomia, eta ez lehiakortasunean oinarritutakoa. Natura suntsitu ordez, hura zainduko duen ekonomia. Azken batean, biziaren jasangarritasuna erdigunean jarriko duen ekonomia.

Horretarako, Euskadiko MgEk bi lan-ildo osagarriren bidez garatzen du bere jarduera: Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH).

Euskadiko MgEk pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartzea garatzen eta alternatiba ekonomiko eta sozialak ikuspegi feminista, ekologiko, dekolonial eta giza eskubideen ikuspegian oinarrituta eraikitzen lagunduko duten hezkuntza-prozesuak sustatzen ditu.

Esparru horretan, Euskadiko MgEk «Ikasgela eta komunitatea gazte eta emakume migratzaileentzako alternatibak eraikitzeko gune gisa» proiektua sustatzen du, KoopSF34 elkartearekin lankidetzan, eta ikastetxeen, elkarteen eta eragile sozialen parte-hartzearekin.

Lortutako emaitzen berri izateko, ikaskuntza nagusiak identifikatzeko eta etorkizuneko esku-hartzeak bideratzeko, proiektuaren kanpo-ebaluazioa kontratatzeko deialdi hau ireki da.

2. Proiektuaren deskribapena

Proiektuaren helburu nagusia alternatiba ekonomikoak eraikitzen laguntzea da; diseinuan eta garapenean biziaren jasangarritasuna erdigunean jarri, eta tradizioz kaltetuak izaten diren taldeen parte-hartzea bermatuko dituzten alternatiba ekonomikoak, hain zuzen ere.

Horretarako, proiektuak xede-populazio desberdinak antolatzen ditu: **hezkuntza-komunitate formala, Afrikako jatorriko gazteak eta emakume migratuak eta horien elkarteak.**

Proiektuak giza eskubide, genero, feminismo, ekofeminismo, dekolonialtasun eta intersekzionalitatearekin lotutako ikuspegiak biltzen ditu, bai eta talde protagonisten parte-hartze aktiboa ere.

3. Ebaluazioaren helburua eta irismena

Alderdi hauetan oinarritutako azterketa proposatzen da, eta alderdi horien irismena eta zehaztasuna aukeratutako erakunde ebaluatzailearekin hitz eginda adostu ahal izango dira:

1. Emaitzak eta sortutako aldaketak

Proiektuan aurreikusitako emaitza nagusien aurrerapen- eta lorpen-maila aztertuko da, eta arreta berezia eskainiko zaie parte hartu duten taldeengan eta inplikatutako hezkuntza- eta gizarte-eragileengan hautemandako aldaketei. Eskura dauden adierazleak eta aldaketa horien irismena ulertzeko aukera ematen duten ebidentzia kualitatiboak hartuko dira kontuan.

2. Lan-prozesuak eta parte-hartzea

Emaitzak lortzeko garatutako prozesu nagusiak baloratu, eta horien garapena erraztu edo oztopatu duten elementuak identifikatuko dira. Arreta berezia eskainiko zaie talde hartzaileen parte-hartzeari, inplikatutako eragileen arteko lankidetzari eta ebaluatutako jardueretan ikuspegi feminista, giza eskubideen ikuspegia eta jasangarritasunaren ikuspegia txertatzeari.

3. Ikaskuntzak eta gomendioak

Aurreko azterketatik abiatuta, proiektuaren indargune, zailtasun eta ikasitako irakaspen nagusiak identifikatuko dira. Ebaluazioak gomendio zehatzak eta lehenetsiak formulatuko ditu, Euskadiko MgEren etorkizuneko esku-hartzeak hobetzeko, batez ere jardueren diseinuari, lan-metodologiei, talde hartzaileen parte-hartzeari eta emaitzen balorazioari dagokienez.

Ebaluazioa batez ere prestakuntzakoa eta ikaskuntzara bideratua izango da. Asmoa ez da proiektuaren inpaktu guztien neurketa zehatza egitea, ezta hautemandako aldaketak esku-hartzearekin kausalki lotzea ere, baizik eta lortutako emaitzak baloratzea, horietan lagundu duten faktoreak ulertzea eta erabakiak hartzeko ondorio baliagarriak ateratzea.

4. Metodologia eta lan-ikuspegia

Ebaluazioa partaidetza-ikuspegitik, ikuspegi feministatik, dekolonialetik eta ikaskuntzara bideratutako ikuspegitik garatu beharko da, proiektuko esperientzien eta ahotsen dibertsitatean arreta berezia jarrita.

Metodologia taldeen ezaugarrietara egokitu beharko da. Bereziki, baloratu egingo da informazioa biltzeko prozesu eskuragarriak, kultura- eta hizkuntza-dibertsitatea errespetatzen dutenak eta parte-hartzean egon daitezkeen desberdintasunekiko prozesu sentikorrak garatzeko gaitasuna.

Arreta berezia jarriko da, parte-hartzaileak informazio-iturritzat ez ezik, beren esperientziak interpretatzeko eta ikaskuntzak identifikatzen laguntzeko gai diren eragiletzat hartzeko.

Ebaluazioak proiektuan erabilitako jarraipen- eta ikaskuntza-tresnak aprobetxatu beharko ditu, beharrezkoak ez diren bikoiztasunak saihesteko eta barneko eta kanpoko ebaluazioen arteko osagarritasuna bultzatzeko.

Ebaluazio-metodologiak proiektua inplementatzen duten erakundeen ezaugarriak eta antolaketa-testuinguruak jaso beharko ditu, bai eta haien lan egiteko moduak eta koordinazio-dinamikak ere. Ikuspegi horri esker, ondorioak eta, bereziki, hobetzeko proposamenak testuinguruan jarri ahal izango dira, eta erakundeen errealitateei erantzun ahal izango diete, etorkizuneko esku-hartzeetarako egokiak eta aplikagarriak izan daitezen.

5. Produktuak eta espero diren emaitzak

Kontratatutako erakundeak edo pertsonak produktu hauek entregatu beharko ditu:

1. Lan-plana eta ebaluazioaren diseinua

Hasierako dokumentua, hauek jasoko dituena:

- Ebaluazioaren helburuaren eta irismenaren ulermena.
- Proposamen metodologikoa eta aukeratutako tekniken justifikazioa.
- Ebaluazio-matrizea, galderak, irizpideak, adierazleak edo analisi-dimentsioak eta informazio-iturriak izango dituena.
- Kontsultatu nahi diren eragileen identifikazioa.
- Lan-kronograma eta jarduera nagusien planifikazioa.

Dokumentu hori Euskadiko MgErekin kontrastatuko da, informazioa biltzen hasi aurretik.

2. Aurretiazko ebaluazio-txostena

Analisi dokumentalaren eta landa-lanaren emaitza nagusiak bilduko dituen dokumentua, eta identifikatutako aurrerapenen, zailtasunen eta ikaskuntzen lehenengo balorazioa izango duena.

Txosten horrek aukera emango du aurkikuntzak kontrastatzeko, eta, hala badagokio, behin betiko dokumentua egin aurretik behar den informazioa osatzeko.

3. Amaierako ebaluazio-txostena

Amaierako dokumentua, gutxienez hauek jasoko dituena:

- Laburpen exekutiboa.
- Ebaluazioaren helburu, irismen eta metodologiaren deskribapena.
- Ebaluazio-prozesuaren mugak.
- Helburuen eta aurreikusitako emaitzen lorpen-mailaren analisia eta balorazioa.

- Ondorio eta ikaskuntza nagusiak, emaitzak lortzea erraztu edo zaildu duten faktoreak barne.
- Etorkizuneko esku-hartzeetarako gomendio zehatzak eta lehenetsiak.
- Eranskin metodologikoak eta informazioa biltzeko erabilitako tresnak, hala dagokionean.

6. Lanaren epeak eta iraupena

Ebaluazioa 2026ko abendutik 2027ko martxora bitartean garatuko da.

Behin betiko egutegia erakunde esleipendunarekin adostuko da, prozesuko parte-hartzaileen prestasuna eta dokumentazioa eskuratzeko beharrak kontuan izanik.

7. Aurrekontua

Ebaluazioa egiteko erabil daitekeen gehieneko aurrekontua 10.800 €-koa izango da (BEZ barne). Aurrekontu horrek lana burutzearekin lotutako kostuak estaliko ditu, baita proiektua modu eraginkorrean gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu ere.

8. Proposamenen balorazioa

Eskatutako ebaluazioa egiteko gaitasun teknikoa egiaztatzen duten pertsona fisikoek, aholkularitza-enpresek, erakunde espezializatuek edo lantaldeek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak.

Aurkeztutako proposamenean irizpide hauek baloratuko dira:

- Prestakuntza eta esperientzia proiektu sozialen, hezkuntza-proiektuen edo lankidetza eta garapeneko proiektuen ebaluazioan.
- Esperientzia informazioa biltzeko eta analizatzeko metodologia kualitatiboetan eta partaidetza-metodologietan.
- Lan-esperientzia migratuekin, arrazializatutako gazteekin eta erakunde sozialekin, bai eta Euskadiko hezkuntza- eta elkarte-testuinguruaren ezagutza ere.
- Ezagutzak eta esperientzia ikuspegi feministako eta arrazakeriaren kontrako ikuspegiko ebaluazioan.
- Giza eskubide, intersekzionalitate eta dekolonialtasunarekin lotutako ikuspegiak ezagutzea.
- Esperientzia Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan, Ekonomia Sozial eta Solidarioan edo proiektuaren gaiekin lotutako eremuetan.

- Txosten teknikoak idazteko eta egiteko gaitasuna.

Hautagaitzak banaka edo lantaldeen bidez aurkeztu ahal izango dira. Azken kasu horretan, eginkizunen eta arduren banaketa zehaztu beharko da.

9. Proposamenen edukia

Proposamenak alderdi hauen arabera baloratuko dira: talde hautagaiaren esperientzia, kalitate metodologikoa eta eskaintza proiektuaren beharretara egokitzea.

Pertsona eta erakunde interesdunek dokumentazio hau bidali beharko dute:

1. **Proposamen teknikoa**, enkarguaren ulermena, ebaluazioaren helburuak, proposatutako metodologia, ebaluazio-galdera nagusiak, informazioa biltzeko teknikak, lan-plana eta aurreikusitako produktuak deskribatuko dituena.
2. **Proposamen ekonomikoa**, aurrekontu osoa banakatuta, dedikazio-orduen zenbatespena eta lotutako gastuak izango dituena.
3. **Taldearen curriculuma edo aurkezpena**, lanean parte hartuko duten pertsonen prestakuntza, esperientzia eta funtzioak barne.
4. **Aurreko lanen erreferentziak**, bereziki proiektuaren gaiekin lotutako ebaluazioak.

10. Proposamenen bidalketa

Pertsona eta erakunde interesdunek 10. atalean adierazitako dokumentazioa posta elektroniko honetara bidali beharko dute:

Posta elektronikoa: ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Gaia: PRO-K3 kanpo-ebaluazioaren eskaintza

Aurkezteko azken eguna: 2026ko azaroaren 19a.

Balorazio-prozesua amaitu ondoren, erabakia parte hartu duten pertsonei eta erakundeei jakinaraziko zaie, proposamenak aurkezteko azken epetik 10 eguneko epean.

Mugarik Gabeko Ekonomialariak – Euskadi

KoopSF 34